

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

1944

EBAZPENA, 2026ko apirilaren 14koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, zeinaren bidez ezetsi egiten baita Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren aitortzea-erakundearen aitortzea lortzeko Consultores de Gestión Pública, SL erakundeak aurkeztutako eskabidea.

Otsailaren 11ko 11/2014 Dekretuaren bidez, «Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundearen» aitortzea arautu zen, emakumeen eta gizonen berdintasuna errazteko eta berdintasun hori eragozten duten oztopoak kentzeko baldintzak sustatzeko, eremu soziolaboralean emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunaren eta tratu-berdintasunaren alde sortu daitezkeen ekimenak sustatuz.

AURREKARIAK

1.– 2025eko urriaren 10ean, Consultores de Gestión Pública, SL entitateak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakunde gisa aitortzeko eskaera aurkeztu zuen.

2.– 2026ko martxoaren 31n jakinarazitako errekerimendu bidez, erakunde honek erakundeari eskatu zion aurkeztutako dokumentazioan antzemandako akatsak zuzentzeko, eta 10 eguneko epea eman zion dokumentazio osagarria aurkezteko.

3.– 2026ko apirilaren 1ean, erakundeak dokumentazioa aurkeztu zuen zuzenketa-errekerimenduari erantzuteko.

4.– Ebaluazio Batzordeak, hasierako dokumentazioa eta zuzenketa aurkeztutakoa aztertu ondoren, eskaria ezesteko ebazpen-proposamena egin zuen, araudi aplikagarriak eskatutako baldintzak nabarmen ez betetzeagatik. Aurkeztutako berdintasun-erlako jarduketaren planak indarraldi-adierazpen hau du: «Mugagabea da, aldizkako berrikuspen eta aldaketetara irekia, baina ez da inola ere etengo haren aplikazioa».

OINARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa.– Otsailaren 11ko 11/2014 Dekretuaren 10. artikuluan dago xedaturik Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundearen aitortzea. Haren arabera, Balorazio Batzordeak ebaluatuko ditu eskabideak, eta ebazpen-proposamena helaraziko dio Emakundeko Zuzendaritzari.

Bigarrena.– Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 31ko 214/2006 Dekretuaren 17.2.f) artikuluan ezarritakoaren arabera, Emakundeko zuzendaritari dagokio Emakunderen helburuak lortzeko administrazio-ebazpenak ematea.

Hirugarrena.– 11/2014 Dekretuaren 4.2.b) artikulua ezartzen du berdintasunaren alorreko jarduketaren planak urte anitzekoa eta denboralizatua izan behar duela. Urte anitzekoa eta denboralizazioa eskatzea funtsezko baldintza da Planaren egokitasuna eta eraginkortasuna baloratzeko.

Laugarrena.– Berdintasun-planak eta haien erregistroa arautzen dituen urriaren 13ko 901/2020 Errege Dekretuak 9. artikuluan xedatzen duenez, berdintasun-planen indarraldia edo iraupena -alderdi negoziatzaileek zehaztuko dutena, hala badagokio-, ezingo da izan lau urtetik gorakoa. Aurkeztutako planean jasotako indarraldi «mugagabearen» aurreikuspena bateraezina da denbora zehaztu beharrekin -araudiak hala eskatzen baitu- eta legez ezarritako gehieneko mugarekin.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ezestea Consultores de Gestión Pública, SL enpresak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakunde gisa aitortzeko aurkeztutako eskaera, otsailaren 11ko 11/2014 Dekretuaren 4.2.b) artikuluan ezarritako baldintza ez betetzeagatik. Izan ere, Berdintasunaren arloko Jarduketa Plana ez dago behar bezala denboralizatuta, eta indarraldi mugagabearen adierazpena du, urriaren 13ko 901/2020 Errege Dekretuan xedatutakoarekin bateraezina dena. Errege-dekretu horren arabera, berdintasun-planen indarraldia ez da lau urtetik gorakoa izango.

Ondorioz, argi dago eskaeraren edukia ez datorrela bat Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundearen aitortpena arautzen duen otsailaren 11ko 11/2014 Dekretuan ezarritako gutxienezko baldintzekin.

Horrek guztiak eragotzi egiten du eskabidea eta aitortpena emateko dokumentazioa behar bezala baloratzea, «Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundea» aitortpena arautzen duen otsailaren 11ko 11/2014 Dekretuan ezarritako balorazio-irizpideei eta betekizunei dagokienez.

Bigarrena.– Ebazpen hau erakunde interesdunari jakinarazi behar zaio, eta adierazi ebazpenaren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokeela Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake zuzenean, dagokion Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Hirugarrena.– Ebazpen hau irmoa denean, artxiba bedi espediente, hargatik eragotzi gabe erakundeak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakunde gisa aitortzeko beste eskabide bat aurkezteko aukera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko apirilaren 14a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendaria,
MIREN ELGARRESTA LARRABIDE.